

Altza

Egia

Txokolartek aipamen berezia

IRUTXULO

txokolarte, Roteta Goikoa kalean dagoen grabatu tailerra, albiste bihurtu zaigu. Tailerreko arduraduna den Estibalitz Alvarez Garcia altzatarrak eta beste hainbat artistek egindako grabatu batek Espainiako Grabatu Lehiaketa Nazionalen aipamen berezia jaso du.

«Oreretako plaza batean arte ekitaldia antolatu genuen. Bertan grabatu bat egin genuen zapalgailu batekin. Lana lehiaketara bidaltzea erabaki genuen», adierazi

digu Esbalitzek. Ezusteko pozgarria hartu zuen altzatar honek aipamen bereziaren berri jakin zuenean. «*Ez dugu inolako saririk eskuratuko, hala ere, Espainiako Grabatu Lehiaketan aipamen berezia jasotzea oso garrantzitsua da*», diosku. Beraz, aurrerantzean gazteak gogotik egingo du lan. Aipatu beharra dago, Estibalitzek bere tailerrean duen torkulua (grabatuak egiteko 500 kiloko tramankulua) arte munduko hainbat izen handik erabili dutela: Oteiza, Ibarrola, Txillida eta Barojak, besteak beste.



Estibalitz Alvarez Garcia oso pozik dago jasotako sariarekin.



Argazki begiradak

IRUTXULO

Joan den ostiraletik aza-roaren 20ra arte, Egiako kultur etxean, Argi Zaleak taldeak eginiko argazkiak egongo dira ikusgai.

Eraskuketak "Argazki leihoak" izena du, eta bertan jatorri eta gai ezberdineko hainbat argazki bildu dira. Guztiek gauza bera dute amankomunean: leihoaz bestaldeko begiraden ideia, alegia. Leiho marko batek biltzen du argazki bakoitza, eta marko horiek birziklatutakoak dira.

Argi Zaleak taldea duela bi urte sortu zen, kultur etxean bertan eginiko tailerraren haritik. Sei lagunek osatzen

dute taldea: Natxo Castellanos, Mikel Andueza, Iñigo Cristobal, Iker Mitxelena, Eduardo Moran eta Mauge Barroso. Eduardo izan ezik, beste guztiak egiatarrak dira. Laguntzaile moduan, berriz, David Amunarriz beren irakasle ohia izan dute. Amunarriz altzatarra EFE agentziako argazkilaria da. "Erakusketan tankera eta gai ezberdinetako argazkiak ikus daitezke. Esaterako, Iker diseinatzailea da, eta hori agerian dago bere argazkietan. Eduardok, berriz, bere aitari omenaldia egin nahi izan dio. Antza gizonak itsasoarekin zerikusia duen lanbidea du. Beraz, itsas giroko argazkiak dira", esan digu David Amunarrizek.